auzoekin | TOLOSA

# AuzoEkin Tolosa (2025)

## 1. Eremua:
Landa eremua




## 5 saioa: Proposamenak lehenestea

**Lekua:**

Tolosako Udaletxea.

**Data:**

2025eko Azaroak 4, asteartea. 18:00-20:00

**Parte-hartzaileak:**

- **Auzokideak:** 23 pertsona
  - 8 emakume
  - 15 gizon
- **Udal Teknikariak:**
  - Garikoitz Lekuona, Gobernantza arloko Teknikaria
- **Dinamizazio taldea:** Garoa Gartziandia y María Alonso del Val (Aise kooperatiba)

**Helburua:**

Eremuaren bost urteko plangintza estrategikoaren barruan lehentasunezkotzat hartuko diren proposamenak hautatzea, modu parte-hartzaile eta irekian. Azken horiek, ondoren, udaleko teknikariei bidaliko zaizkie, hauen bideragarritasuna eta garapenerako ibilbidea azter dezaten.

**Saioaren garapena:**

Tolosako Landa Auzoek osatzen duten 1. Eremuko 23 bizilagun Udaletxera bertaratu ziren (auzo guztietatik Montesku ezik), saio ireki honetan parte hartzeko. Han izan ziren Garikoitz Lekuona, Tolosako Udaleko Gobernantza Saileko teknikaria, eta Aise-ko bideratze-taldea.

Saio honetan, dinamika parte-hartzailearen bitartez, prozesuaren fase honetan jasotako eta aldez aurretik Talde Eragileko ordezkaritza batek sailkatu eta iragazitako proposamenei lehentasuna eman zitzaien, hiru aldagairen arabera.

Parte-hartzea aitortuz eta eskertuz hasi zen saioa, prozesua kokatuz eta aniztasunari ongietorria emanez, bateratze ariketa txiki batekin:

*- Nork parte hartzen du Talde Eragilean?*

*- Nortzuk datoz gaur lehenengo aldiz?*

*- Nortzuk datoz … auzotik?*

Jarraian, dinamika azaldu zen eta sei talde txikietan bildu ziren parte-hartzaileak sei panelen inguruan lan egiteko. Talde eragileko eta auzo desberdinetako sei pertsonek aukeratu dituzte lantaldeak. Talde bakoitza auzo desberdinetako 3-4 bizilagunek osatu dute. Horretarako, Talde hauek anitzak izateko Genero aniztasuna, adina, bizi diren auzoa eta abar. Kontutan hartzeko eskatu zaie. Talde txiki hauek proposamenen lehentasunen inguruan eztabaidatu eta akordioak lortzeko ideiarekin, auzoetan aurreikusten diren behar ezberdinak kontuan hartuta.

Proposamenak lehenesteko, bi ronda egin zituzten sei talde txiki hauek eta panel guztietaik birritan pasa egin ziren, arlo estrategikoetan sailkatuta zeuden proposamen guztiak behatuz, eta haietan proposamenei lehentasuna eman zitzaien hiru koloretako gometxak erabiliz.

- **Urdina.** Eremuan eragin handiena izango duten proposamenak adierazteko, bai pertsona gehiagori eragiten dietelako, bai proposamen eraldatzaileagoak direlako, edo pertsonengan eragin sakonagoa edo iraunkorragoa izango dutelako.
- **Horia.** Premia handiena duten proposamenak edo talde jakin batzuen berehalako beharrei erantzuten dietenak seinalatzeko.
- **Gorria.** Proposamen bideragarrienak edo ahalegin eta baliabide gutxiagorekin ibilbide luzeena izan dezaketenak adierazteko.

Taldeak antolatu, dinamika azaldu eta zalantzak argitu ondoren, talde bakoitzari gometx kopuru mugatu bat banatu zitzaion (30 urdin, 15 hori eta 15 gorri), parte-hartzaileak aretoan banatu ziren eta, adostasunez, aldez aurretik iragazi eta Hiri Agendako 10 Arlo Estrategikoetan antolatuta zeuden prozesuan zehar jasotako 53 proposamenen artean aukeratu zuten. Hona hemen dinamikaren emaitzak.

Bukaeran bizipenaren sentsazioak partekatu dira, balioan jarri da elkarlana eta auzo desberdientako parte-hartzea. Amaitzeko hurrengo pausoak aipatu dira.

Saioaren amaieran, Talde Eragileko parte-hartzaileek gogora ekarri digute 4. saioan egindako proposamen bat faltan bota izan dutela paneletan. Hauxe zen: “Karrozak hortik kendu, olarraindik kanpo”. Esan zigutenez, nazkatuta daude ihauterietako karrozak hor gordeta izatez eta behin baino gehiagotan eskatu dute hauek beste nonbaitera eramatea. Jasotzen dugu proposamen hau paneletara ekartzerako orduan hanka sartu dugula, barkamena eskatu eta proposamen hau Udal-teknikariei helaraziko diegula adierazi zaie.

## Proposamenak

### AE1. LURRALDEA, PAISAIA ETA BIODIBERTSITATEA / AE1. TERRITORIO, PAISAJE Y BIODIVERSIDAD

**LE1. Lurralde- eta paisaia-identitatea indartzea.**

**LE2. Ekosistemak kontserbatu eta konektatzea.**

**LE3. Lurzorua eta lurraldearen erabilerak modu jasangarrian kudeatzea.**

**LE4. Espazio degradatuak berreskuratzea.**

**LE5. Ingurumen-hezkuntza eta lurraldearekiko lotura sustatzea.**

| Proposamena | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|
| AO1.2. Ugane eta Aldaba arteko bide-sarea berreskuratzea, izandako luizi handiaren ostean. | 4 | 0 | 2 |
| AO1.1. Mendiko bideak garbitu eta mantentzea. Lehentasunak: PR eta GR direnak, baita herri-bideak eta auzoen arteko konexioak ere (Urkizuko bideak, Aldaban…). Irizpidea: jende gehien ibiltzen diren eta egoera txarrenean dauden bideak lehenestea. | 6 | 4 | 2 |
| AO1.3. Zuhaitzen eta belardien mantenua egitea. | 1 | 0 | 1 |

## AE2. HIRI-EREDUA / AE2. MODELO URBANO

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE6. Lehendik dauden hiri-ehunak birsortu eta kualifikatzea.** | AO2.4. Auzoetako hiriguneak urbanizatzea: aparkalekuak, argiteria eta seinaleak hobetuz. | 5 | 3 | 4 |
| | AO2.5. Eremu publikoak urte osoan mantentzea urteko planifikazio baten bidez: zabor bilketa maizago egitea, Lagun Artea elkartearen inguruko eserlekuak eta zuhaitzak zaintzea, belardiak eta plazak berritzea. | 7 | 2 | 3 |
| | AO2.10. Olarrain auzoan parkea jartzea eta gero mantentzea. | 0 | 0 | 0 |
| | AO2.14. Auzoetako elementu artistiko eta arkitektonikoak nabarmentzea: Olarrain S.A. paper-fabrikako akueduktua eta Oteizaren eskultura. | 1 | 0 | 1 |
| | AE2.16. Haur-parkea jartzea Lagun Artea elkartearen ondoan. | 0 | 0 | 2 |
| **LE7. Espazio publikoak eta ekipamenduak klima-aldaketara egokitzea.** | AO2.15. Panel akustikoak instalatzea N-1 eta trenaren zaratatik babesteko: Olarrain, Aldabatxiki eta Artzabaltzan. | 4 | 3 | 1 |
| **LE8. Energia-eraginkortasuna eta eraikin birgaitzea hobetzea.** | AO2.9. Auzoetako argiteria berrikustea eta behar diren puntuetan argiak jartzea: oinezkoentzako lekuetan, baita baserri bakartietan segurtasunagatik ere; Auzotxikin argi gehiago jartzea. | 4 | 3 | 2 |

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE9. Natura, ura eta erosotasun klimatikoa integratzea hiri-diseinuan.** | AO2.13. Aldabatxikin saneamendu-sarea behingoz osatzea, errepide-bazterreko urak behar bezala bideratuz. | 5 | 2 | 1 |
| | AO2.8. Ez duten auzo eta baserrietan hobi septikoa instalatzea eta ur beltzak kanalizatzea (Auzotxiki, Bedaio, eta abar). | 6 | 1 | 0 |
| **LE10. Irisgarritasuna, bizigarritasuna eta hurbiltasuna indartzea.** | AO2.1. Olarrainen tren-zubiaren baranda konpondu eta margotzea. | 0 | 0 | 2 |
| | AO2.2. Urkizuko Sozietatearen ur-hornidura konpontzea. | 2 | 2 | 2 |
| | AO2.6. Sorospen-sistemak, anbulantziak eta suhiltzaileak hobetzea: baserrien izenak seinalizatzea zenbaki islatzaileekin eta suteen aurkako planak ezartzea (Urkizuko eredua). | 3 | 2 | 1 |
| | AO2.7. Desfibriladoreak instalatzea auzo guztietan. | 4 | 3 | 5 |
| | AO2.11. Ur gabezia duten herritarrei ura bermatzea; sare publikotik konektatzea behar duten eta hala nahi duten auzoetan. | 7 | 5 | 2 |
| | AO2.3. Gas naturalaren erabilgarritasuna aztertzea auzoetan, benetako beharra eta egokitasuna kontuan hartuta. | 2 | 0 | 0 |

## AE3. KLIMA-ALDAKETA / AE3. CAMBIO CLIMÁTICO.

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE11. Lurraldearen erresilientzia klimatikoa areagotzea.** | | | | |
| **LE12. Isurien murrizketa eta arintzea sustatzea.** | | | | |
| **LE13. Trantsizio energetiko lokala eta energia berriztagarriak bultzatzea.** | AO3.1. Udalak gune publiko edo komunetan energia-komunitateak sortzea sustatzea, energia berriztagarri eraginkorrak kolektiboki erabiltzeko.. | 3 | 0 | 3 |
| **LE14. Uraren kudeaketa eta arrisku naturalen integrazioa sustatzea.** | | | | |
| **LE15. Kultura klimatikoa eta herritarren ekintza sustatzea.** | | | | |

## **AE4. BALIABIDE NATURALEN KUDEAKETA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA** / AE4. GESTIÓN DE RECURSOS NATURALES Y ECONOMÍA CIRCULAR.

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE16. Hiri-hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzea.** | | | | |
| **LE17. Uraren, energiaren eta materialen erabilera-eraginkortasuna sustatzea.** | | | | |
| **LE18. Ekonomia zirkularra eta berrikuntza berdea bultzatzea.** | AO4.3. Auzoetan ekonomia sortzen duten ekimen pribatuak laguntzea eta bizibideak erraztea jendea auzoetan geratu ahal izateko. | 2 | 0 | 2 |
| | AO4.2. Auzoetako ekoizpen-sistemari buruzko hausnarketa egitea, trantsizio iraunkor baterantz. | 0 | 1 | 1 |
| **LE19. Baliabide naturalen eta paisaia produktiboaren kudeaketa jasangarria sendotzea.** | AO4.1. Udalak Urkizuko tabernaren kudeaketarako formula bilatzeko elkarrizketekin jarraitzea eta informazio hori aldian-aldian partekatzea, gune komunitario eta ekonomiko iraunkor gisa. | 4 | 3 | 0 |
| **LE20. Kontsumo arduratsu eta jasangarriaren inguruan sentsibilizatu eta heztea.** | | | | |

## **AE5. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA** / AE5. MOVILIDAD SOSTENIBLE.

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE21. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna indartzea.** | AO5.1bis3. Olarraindik bidegorriarako konexioa egitea. Aritzabaltza-Bentaundi lotzea Olarraineko bidegorriarekin. | 6 | 6 | 0 |
| | AO5.1bis2. Olarrain eta Otsarain arteko oinezkoen igarobidea eta segurtasuna bermatzea, gaur egun arriskutsua baita. | 5 | 3 | 0 |
| | AO5.3. Auzotxikitik erdigunerako bidea konpontzea. | 0 | 0 | 1 |
| **LE22. Garraio publikoaren konexioa eta kalitatea hobetzea.** | AO5.2. Garraio publikoa: Eremurako Mugikortasun Plana egitea, Olarrain, Urkizu eta Auzotxikikoa bezalako zerbitzuak eremu osora zabalduz. Autobusaren maiztasuna handitzea eta Hiribus zerbitzua Olarraineraino zabaltzea. | 5 | 1 | 4 |
| **LE22. Garraio publikoaren konexioa eta kalitatea hobetzea.** | AO5.6. Taxi-zerbitzua hobetzea: ordutegiak zabaltzea eta zerbitzurik ez dagoen auzoetara (adib. Bedaio) hedatzea, baita bisitariek erabiltzeko aukera ere. | 5 | 2 | 4 |
| **LE23. Ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu eta aparkalekua optimizatzea.** | AO5.13. Aldabako aparkalekua konpontzea eta Kasko sarreran lekuz aldatzeko aukera aztertzea, aparkaleku gehiago sortzeko. | 2 | 3 | 0 |
| **LE24. Irisgarritasun unibertsala eta bide-segurtasuna bermatzea.** | AO5.1. Udalaren pistak eta errepideak garbitu eta mantentzea (sasiak kentzea, zoladura egokitzea). | 3 | 5 | 2 |
| | AO5.1bis1. Diputazioaren eskumena diren errepide nagusien mantentzean Udalak bitartekaritza egitea, segurtasuna bermatzeko. | 1 | 2 | 3 |

## **AE6. GIZARTE-KOHESIOA** / AE6. COHESIÓN SOCIAL

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE26. Ekipamenduetarako sarbide bidezkoa bermatzea.** | AO6.6. Urkizuko frontoia berritzea. | 0 | 1 | 3 |
| | AO6.7. Lagun Artea Elkarteko frontoia konpontzea. | 0 | 0 | 1 |
| **LE27. Sare komunitarioak eta auzokideen arteko bizikidetza indartzea.** | AO6.4. Jatorri ezberdinetako pertsonen arteko topaketak eta bizikidetza sustatzea, ekimen kultural, tailer eta topaguneen bidez. | 0 | 0 | 2 |
| **LE28. Genero-berdintasuna eta aniztasuna sustatzea.** | | | | |
| **LE29. Ongizatea eta zaintza bizitzaren etapa guztietan bultzatzea.** | AO6.1. Nagusientzako formazio-ikastaroak eta tailerrak auzoetan, elkarteak topagune gisa erabiliz. | 2 | 0 | 1 |
| **LE30. Parte-hartze soziala eta herritarren erantzunkidetasuna sustatzea** | AO6.5. Ikastaro eta kultur jarduera parte-hartzaileak antolatzea. | 3 | 0 | 2 |

## AE7. EKOIZPEN-EREDUAK ETA HIRI-EKONOMIA / AE7. MODELOS PRODUCTIVOS Y ECONOMÍA URBANA

| | | |
|---|---|---|
| **LE31. Tokiko eta hurbileko merkataritza dinamizatzea.** | | |
| **LE32. Berrikuntza, ekintzailetza eta ekonomia soziala bultzatzea.** | | |
| **LE33. Enplegu berdea eta zaintza-lanak balioan jartzea.** | | |
| **LE34. Industrialdeak, tailerrak eta eremu ekonomikoak biziberritzea.** | | |
| **LE35. Lanbide-heziketa eta lanerako txertaketa hobetzea.** | | |

## AE8. ETXEBIZITZA / AE8. VIVIENDA

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE36. Etxebizitza eskuragarria eta soziala areagotzea.** | AO8.2. Udalak lurrak erostea etxebizitza prezio duinekin eraikitzeko; etxebizitza publikoa eta irisgarritasun soziala bermatzeko. | 8 | 5 | 2 |
| **LE37. Etxebizitza-parkea birgaitu eta jasangarritasun-irizpideetara egokitzea.** | AO8.3. Etxebizitza, elkarte eta eraikinetarako laguntzak ematea, haien egoera eta mantenimendua hobetzeko. | 8 | 1 | 1 |

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE37. Etxebizitza-parkea birgaitu eta jasangarritasun-irizpideetara egokitzea.** | AO8.4. Udalaren eskumeneko eraikin eta guneen mantentzea eta kontserbazioa. | 6 | 2 | 3 |
| **LE38. Kooperatiba- eta erabilera-lagapeneko etxebizitza-formulak sustatzea.** | | | | |
| **LE39. Etxebizitzen irisgarritasuna, bizigarritasuna eta erosotasuna hobetzea.** | | | | |
| **LE40. Etxebizitza-bazterketa saihestu eta auzoarekiko lotura-eskubidea babestea.** | AO8.1. Ingurunea errespetatzen duen landa-etxebizitzarako plan integrala egitea, hirigintza-planarekin koordinatuta. | 6 | 3 | 2 |
| | AO8.1bis. Hirigintza-araudia landa-auzoetako errealitatera eta beharretara egokitzea, etxebizitza ondarearen birgaitzea eta erabilera sustatzeko. | 6 | 4 | 1 |

## **AE9. TRANTSIZIO DIGITALA** / AE9. TRANSICIÓN DIGITAL

**LE41. Auzo guztietan konektibitatea eta azpiegitura digitala hobetzea.**

**LE42. Administrazio elektroniko inklusibo eta irisgarria garatzea.**

**LE43. Arrakala digitala murriztu eta alfabetatze teknologikoa sustatzea.**

**LE44. Berrikuntza digitala eta tokiko ekonomia digitala bultzatzea.**

**LE45. Etika, segurtasuna eta datuen subiranotasuna bermatzea.**

| | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|
| AO9.4. Falta den auzo eta etxeetan zuntz optikoa (fibra optikoa) jartzea. | 4 | 3 | 0 |
| AO9.2. Wifi publikoa bermatzea gune komunitarioetan. | 1 | 1 | 2 |
| AO9.3. Herriko zerbitzuak teknologia bidez landa-auzoetara hurbiltzea, udalekiko komunikazioa eta oinarrizko izapide digitalak errazteko. | 0 | 0 | 0 |
| AO9.1. Auzoetan baliabide teknologikoak bermatzea (ikasgela digitalak, arbel digitalak). | 0 | 0 | 1 |
| AO9.5. Auzotarren jardueretarako egokitutako espazioak baliabide digital nahikoekin hornitzea (ordenagailua, proiektorea, interneteko konexioa), eta dauden tresnak eguneratu eta berritzea. | 3 | 0 | 5 |

## **AE10. GOBERNANTZA ETA KALITATE DEMOKRATIKOA** / AE10. GOBERNANZA Y CALIDAD DEMOCRÁTICA

**LE46. Auzoetako gobernantza parte-hartzailea sendotzea.**

**LE47. Erakundeen arteko koordinazioa eta kudeaketa publikoa hobetzea.**

**LE48. Plangintza, ebaluazioa eta kontu-ematea sustatzea.**

**LE49. Gardentasuna, komunikazioa eta gobernu irekia indartzea.**

**LE50. Kultura demokratikoa eta herritarren erantzunkidetasuna sustatzea.**

| | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|
| AO10.2. Udalarekin harreman zuzena zehaztuko duen planifikazioa egitea: auzoetara udal teknikarien bisitak eta bilerak antolatzea, herrian egiten diren bilerekin txandakatuz. | 8 | 4 | 3 |
| AO10.3. Proposamenen ibilbidea eta egoera ezagutzea, Erabaki udal plataformaren bidez trazabilitatea eta aurrez aurreko bilera informatiboak bermatuz. | 3 | 1 | 1 |
| AO10.1. Burokrazia arintzea eta dirulaguntzen justifikaziorako irizpideak malgutzea; adibidez, festetarako kontratazioetan edo justifikazioen betebehar eta epeetan malgutasuna ematea. | 6 | 0 | 4 |